

Bero-beroan

Sarkozyk dio Europak kultur aniztasuna defendatu behar duela

DAVYTH HICKS-EK www.eurolang.net webgunean azaldu duenez, duela gutxi Nicolas Sarkozyk Europako Parlamentuan hitz egin du hilero bezala. Europarrek munduaren globalizazio eta komertzializazioarengatik bizi duten krisia izan du hizpide. Gogoeta hauxe egin du Davyth Hicks: “Bretainako, Korsikako, Alsaziako, Kataluniako eta Okzitaniako hizkuntz eragileak gustura izango dira Sarkozy jaunak honakoa esan baitzuen: ‘Europa Europa izango da gizon ororen begietara balio espiritualak eta zibilizazio balioak defendatzen baldin baditu, indar eta energia guztia kultur aniztasuna defendatzeko biltzen badu’”.

Korrika Bretainan

REDADEG (korrika egitea, bretoieraz) izena hartuko du Euskal Herrian bi urtez behin egiten den Korrikaren lehengusuak. Lehenengo aldiz egingo

dute datorren urteko apirilaren 30ean hasi eta maiatzaren 3a artean. 600 kilometroko lasterketa berezia izango da, Naoned-en (Nantes) hasi eta Karaez-en (Carhaix) bukatu arte. Redadegen helburua izango da bretoiera ikasketa zein erabilpena bultzatzea eta diru-laguntza urriak dituen Diwan elebiko eskola ekonomikoki laguntzea. Eskola horientzat 60.000 euro biltzeko itxaropena dute antolatzailleek.

Imanol Urbietarentzat Anton Abbadia saria

GIPUZKOAKO Foru Aldundiak Imanol Urbietak (Zarautz, 1934) musikagile eta musika irakasleari emango dio Anton Abbadia saria, hilaren 30ean. Euskararen alde lan egiten duten pertsona eta erakundeek jaso ohi dute 1996az geroztik sari hori.

Euskaltzaindiaren arauak eskurago

EUSKALTZAINDIAK arau-erabakiak libre eskuratzeko sistema abian jarri

du. Sistema horren izena e-AEB da, hau da, arau-erabakien banaketa elektronikoa. Sistema honen bidez, Euskaltzaindiaren Arauak, Hiztegi Batua, Izendegiak edota Gomendioak ordenagailura jaitsi ahal izango dira.

Arau maila duen erabaki bat onartzen den bakoitzean, posta elektronikoz harpidedunei jakinaraziko zaie, eta arau berria edota e-AEBren artxibo berria jaitsi ahal izango da.

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

HIZKUNTZA Politikarako sailburuordetzak Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldia antolatuko du Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren laguntzaz. Ekitaldia Artiumen, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoan, ospatuko da. Euskararen Nazioarteko Eguna Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan txandatu ospatzen du Eusko Jaurlaritzak. 1995etik egiten da Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzeko erabakia hartu zutenetik.

Sarkozyren grebak

Estatu frantseseko lehendakari ahaltsua, Nicolas Sarkozy, joan den asteaz geroztik borroka latza izaten ari da sindikatuekin. Honek Ipar Euskal Herriari ere eragiten dio. Garraio publiko eta energia sektoreetako langileak, ikasleak babestuta, grebara atera ziren joan den astean, Sarkozyk gogortzeko asmoa duen pentsioen erregimen berezia salatzen. Aste honetan bertan, funtzionarioek, zeinak plantilla eta hauen zerbitzuak murriztearen aurka dauden, gauza bera egingo dute. Justiziaren eremuak eta opera kantariak zein dantzariak jarraituko diete bide horri. Egia da Sarkozy lehendakaritzara lan eta gizarte mailako berrikuntzengatik heldu dela, gizartearen gehiengoak babestuta. Baina, apustu arriskutsua da bai berarentzat baita sindikatuentzat ere. Gaurko grebalariekin aurrean

amore ematen badu –1995ean greben luzapenak Chirac eta Juppé erforma bertan behera uztera behartu zituen–, beste talde batzuk, funtzionarioak aste honetan bertan, kalera aterako dira gizarte eta soldata hobekuntzak eskatzeko. Amore ematen ez badu, hain aldarrikapen sentikorren aurrean eta grebak luze jotzen badu garesti ordainduko du. Datorren urteko martxoan udaletako hauteskundeak ditu. Bere kudeaketaren lehen proba izango dira.

Sindikatuak ere amore ematen badute eta Sarkozyren erreforma neoliberalak orain gelditzea lortzen ez badute, beste kolektibo batzuek lan eta gizarte erreforma horiek eta lehendik egiteke daudenak jasan beharko dituzte.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Jon Abrilek.sustatu.com-en esanak:

“TDTren bidez Nafarroan ETB ez ikustea ez da EITBren ardura, Nafarroako Gobernuarena baizik, azken honi dagokiolako lizentziak esleitzea, eta bistan da, ETBri ez dio lizentzia bakar bat ere eman. Harritzekoa dena da, EITBko agintariak zeinen isilik daramaten gaia. Eta Gipuzkoarekin mugan bizitzeagatik ere, ez dugu digitalizazioan ETB ikusten ahal. Oraingoz, analogikoan ikus dezakegu, baina hau itzaltzarekin, eta gauzak aldatzen ez badira, Nafarroan ETB ikusteari utziko diogu ez ETB1, ez 2, ez 3, eta ez 4!”.

Joxemari Muxikak.sustatu.com-en esanak:

“Arazoa ahozko komunikazioan gertatzen da, euskara ulertzen ez duen solaskideak berak ulertzen duen hizkuntza erabiltzea behartzen gaituenean. Jarrera honek pertsona batzuen eskubideak zapaltzea dakarrelako kostu sozial handia du: berdintasunerako eskubidea, askatasunerako eskubidea eta duintasunez tratatua eta errespetatua izateko eskubidea”.

Tortura: zerbait aldatzera ote doa?

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

TORTURA DELA ETA Amnesty Internationalek berriz salatu ditu Espainian segurtasun indarrek, salbuespenik gabe, ematen dituzten tratu txarrak. Enegarrenez. Eta zertarako, beraz? Salaketan joan-etorrien jarioan, inpuniterako dagoen tarte zabala agerian uzten du galderak.

Eusko Legebiltzarrean bertan ere tortura salaketak ugariak izan dira eta aintzat hartuak eta

aztertuak ere bai horietako batzuk, baina joan den astera arte itxaron behar izan da torturaren berme esanguratsuenetakoa den inkomunikazioaren amaiera ofizialki eskatzeko. Eta pentsatzekoa da, horrek esan nahi duela Ertzaintzak egindako atxiloketetan, epailearen agindu zehatzik ez bada bederen, inkomunikaziorik ez dela erabiliko.

Madrilgo Kongresuan jai izango du lege aldaketa eskaerak, baina Eusko Legebiltzarreko batzorde bat joan egin beharko da bertara onartutakoaren defentsa egitera eta, ezezkoaren baitan, iruzkinen ñabarduretan jarri beharko da arreta PSOEko lerroetan aldaketa zantzurik antzematen den ala ez ikusteko.



Esparru Demokratikorako Proposamenaren aurkezpena.

Zeren eta, Madrilgo sinadura esanguratsu batzuek idatzitakoak ikusita, aldaketa zantzurik ba ote den pentsatzen has liteke akaso. Soledad Gallego-Diaz *El Pais*-eko sinadura eta barne egituretako izen garrantzitsua, adibidez, PSOEren Gobernuak gaiari behar bezala heltzeko zeren zain dagoen galdetzen hasi da. Amnesty Internationaleko salaketak aintzat hartu eta agintarien –eta herritarren– esku hartzea eskatzen zuen argi eta garbi. Erre-
suma Batuko gobernua 70eko hamarkadaren amaieran eman zion bukaera torturaren erabilera sistematikoari, IRA oraindik bete-betean ari zenean bere bide armatuaren ibilbidean.

ESPARRU Demokratikorako Proposamena luzatu berri du ezker abertzaleak duela hiru urteko Anoetako proposamen ospetsuaren hirugarren urteurrenarekin bat eginda.

Anoetako hark euskal gizarteko ia eragile guztien onarpena eta bultzada izan zuen. Negoziazio prozesu saio berria bideratzera eta

babestera zihoan, ordura arte ez moduan, bake prozesuan alde *politikoa* eta alde *teknikoa* bi mahaitan bereiziz. Baina bistan da testua eta testuinguruaren interpretazioak desberdinak izan direla. Legebiltzar batek onartutako legea ere bera da guztientzat, baina epaileek egiten dituzten interpretazioen ondorioz oso emaitza desberdinak eman ditzake.

Hark baliagarria izaten jarraitzen du hainbat eragilerentzat, inork ez du hura komunetik behera bota. Haren garapen eta aplikazioan eragileek egindakoan dira desberdintasunak. Ondorioa, berriz eta askoz gehiago hitz egin behar da, besteak beste. Irtenbidea lortu arte.



IBARRAKO U D A L A

San Bartolome plaza 2
20400 IBARRA
Euskara Zerbitzua: 943 67 38 27
euskara@ibarrakoudala.net
www.ibarrakoudala.net

• Administrazioa	943 67 11 38
• Euskara Zerbitzua	943 67 38 27
• Txontso Lapidoteka	943 67 51 72
• Uztarpe Udal Haer Eskola	943 67 02 84
• Kiroldegia (Tel/Faxa)	943 67 15 44
• Kultur Etxea	943 67 03 99
• Gizarte Zerbitzua	943 67 04 15